

Durangoko Udala

Durangoko Udalaren Julene Azpeitia 2021 literatura lehiaketako oinarriak, euskarazko ipuin, olerki eta bertsoen sailetan

Durangoko Udaleko Euskara, Kultura eta Hezkuntza Sailak "Julene Azpeitia 2021" literatura lehiaketarako deialdia egin du.

Xedea

Lehiaketaren xedea da euskaraz idazteko zaletasuna sustatzea eta indartzea eta, aldi berean, lan sarituak argitara ematea. Alde batetik, Durangoko eskoletan ikasten ari diren ume eta gazteei (11 urtetik 18ra bitartekoak) zuzenduta dago, eta baita ere beste herrietako eskoletan ikasten ari diren ume eta gazte durangarrei. 18 urtetik gorako sarietara, ostera, edonor aurkez daiteke.

Deialdi hau Durangoko Udalak 2020ko abenduaren 22ko osoko bilkuran onartutako 2021eko diru-laguntzen plan estrategikoan dago jasota.

Lehiaketaren oinarriak

- 1. Parte-hartzaileak.** Julene Azpeitia 2021 Lehiaketan honakoak izan daitezke parte-hartzaile:
 - a) Durangoko eskoletako ume eta gazteak eta kanpoko eskoletan ari diren gazte durangarrik, 18 urte artekoak.
 - b) 18 urtetik gorako sailean, edonor.
- 2. Hizkuntza.** Lanok euskaraz beharko dute idatzita egon, eta argitaratu gabeak beharko dute izan. Ipuinak, olerkiak edo

Ayuntamiento de Durango

Bases del concurso literario Julene Azpeitia 2021 del Ayuntamiento de Durango en los apartados de cuentos, poemas y versos en euskera

El área de Euskera, Cultura y Educación del Ayuntamiento de Durango convoca el concurso literario "Julene Azpeitia 2021".


Objeto del concurso

El objetivo del concurso es promover y reforzar la afición por escribir en euskera y, asimismo, publicar los trabajos premiados. Está dirigido a escolares que estudian en los centros de enseñanza de Durango (de 11 a 18 años), así como a escolares durangueses que estudian en centros de otros municipios. En la categoría mayores de 18 años se puede presentar cualquiera.

La presente convocatoria está recogida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2021 aprobado en pleno por el Ayuntamiento de Durango el 22 de diciembre de 2020.

Bases del concurso

- 1. Participantes.** Podrán participar en el concurso Julene Azpeitia 2021 las siguientes personas:
 - a) Escolares de los centros de Durango y escolares durangueses, de hasta 18 años, que cursan sus estudios en otros centros.
 - b) Cualquier persona mayor de 18 años.
- 2. Idioma.** Los trabajos deberán estar redactados en euskera y ser inéditos. Los cuentos, poemas o versos deben



bertsoak ondorengo ezaugarri tipografikoekin idatzita aurkeztu behar dira:

Letra tipoa: Univers, Arial, Times New Roman edo antzeko bat.

Puntua 11 edo 12. Lerroen arteko tarteak: 1,5

Ezin dira aurkeztu jatorriz beste hizkuntza batean idatziak izan diren lanak eta lehiaketarako euskaratu direnak.

3. **Egilearen datuak.** Idazlanean ez da egilearen daturik jarriko, lema bat soilik. Egilearen datuak (izen-deiturak, adina, maila, telefonoa, posta helbidea eta helbide elektronikoa, kategoria eta saila, eta lanaren lema) kartazal batean sartuko dira eta azalean lanari jarri zaion lema bera idatziko da. E-mailez bidalitako lanen kasuan, ipuina, olerkia edo bertsoa fitxategi batean bidaliko da "ipuina", "olerkia" edo "bertsoa" izenarekin, eta egilearen datuak "egilea" izeneko beste fitxategi batean.

4. **Emateko prozedura.** Sariak norgehiagoka sistemaren bidez emango dira, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da eta aurkeztutako ipuinak, olerkiak eta bertsoak alderatuko ditu 5. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eskabideen arteko lehentasun-hurrenkerara ezartzeko.

5. **Baloratze irizpideak.** Deialdi honetarako izendatuko den epaimahai

presentarse escritos con las siguientes características tipográficas:

Letra tipo: Univers, Arial, Times New Roman o similar.


Punto 11 ó 12. Distancia entre líneas: 1,5.

No se pueden presentar trabajos que hayan sido escritos originalmente en otra lengua y hayan sido traducidos al euskera para el concurso.

3. **Datos del autor o autora.** En la obra no se incluirán datos del autor o autora, sólo un lema. Los datos del autor o la autora (nombre y apellidos, edad, teléfono, dirección postal y correo electrónico, categoría y apartado, y lema de la obra) se introducirán en un sobre y en la portada se escribirá el mismo lema que se ha puesto a la obra. En el caso de obras enviadas por e-mail, el cuento, poema o verso se enviará en un fichero con el nombre "ipuina", "olerkia" o "bertsoa", y los datos del autor/a en otro fichero con el nombre "egilea".

4. **Procedimiento de concesión de premios.** La concesión de los premios se realizará mediante el sistema de concurrencia competitiva, esto es, mediante la constitución de un tribunal calificador que procederá a la comparación de los cuentos presentados, a fin de establecer una prelación entre las mismas, atendiendo a los criterios de valoración fijados en la base 5.

5. **Criterios de valoración.** El tribunal calificador designado a los efectos de



kalifikatzaileak bakarrik aztertuko ditu epearen barruan aurkeztutako eskabideak, eta beraien iritziz puntu gehien lortu dituztenei emango dizkie sariak. Gehienez ere 10 puntu lortu ahal izango dira, eta puntuok erabakitzeko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Idazlanei emandako jarraipena eta harekiko batasuna: 4 puntu, gehienez.
- b) Kalitate literarioa: 3 puntu, gehienez.
- c) Idazlanaren garapenean izandako sormena: 3 puntu, gehienez.

Saria eman gabe geratu ahal izango da, baldin eta, epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako idazlanek ez badituzte betetzen sarituak izateko ezarritako baldintzak, edo balorazioan ez bada puntuazio nahikorik eskuratu. Edonola ere, saria banatzeko prozeduran objektibotasun, gardentasun, berdintasun, publizitate eta lehia printzipioei eutsiko zaie.

Epaimahai kalifikatzaileak ahalmena du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zaintzen ez duten idazlanak kanpoan uzteko eta baztertzeko, otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legeak eta indarrean dauden gainerako legezko xedapenek ezarritakoarekin bat.

6. **Epaimahai kalifikatzailea.** Aurkeztutako ipuinak, olerkiak eta bertsoak aztertzeko eta baloratzeko, hiru epaimahai kalifikatzaile eratuko dira:

lpuinetan:

esta convocatoria valorará las solicitudes presentadas en plazo, otorgándose los premios a aquellos trabajos que, a juicio del mismo, obtengan mayor puntuación, sobre un máximo de 10 puntos, conforme a los siguientes criterios y puntos:


- a) Continuidad y unidad con el trabajo propuesto: hasta 4 puntos.
- b) Calidad literaria: hasta 3 puntos.
- c) Creatividad en el desarrollo de la historia: hasta 3 puntos

El premio podrá ser declarado desierto si ninguno de los trabajos presentados reúne, según criterio del tribunal, los requisitos exigidos para su selección o si su valoración resulta insuficiente. En todo caso, el procedimiento de la obtención de premios estará regido por los principios de: objetividad, transparencia, igualdad, publicidad y concurrencia competitiva

El Tribunal calificador tiene potestad para excluir aquellos trabajos que no respeten la igualdad entre hombres y mujeres conforme a lo dispuesto en la Ley vasca 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y demás disposiciones legales vigentes.

6. **Tribunal calificador.** Para el análisis y la evaluación de los cuentos, poemas y versos presentados, se constituirán tres tribunales calificadores:

Cuentos:



DURANGO
Udala • Ayuntamiento
.....
Idazkaritza
Secretaría

Euskara Saila
Area de Euskara

Zeharkalea, 3
48200 DURANGO
Tel.: 94 603 00 16
Fax: 94 603 00 26
E-mail: euskera@durango.eus
P4803400C

- Presidentea: Xabier Boveda Garai, Institutuko irakaslea.
- Joxe Garaizabal Aizpurua, irakasle ohia.
- Maria Nieves Agirrezabal Urien, euskara irakasle ohia eta Erromanikoetan lizentziaduna.
- Idazkaria: Juan Antonio Atutxa Balentziaga, Durangoko Udaleko euskara teknikaria.

Olerkietan:

- Presidentea: Maria Nieves Agirrezabal Urien, euskara irakasle ohia eta Erromanikoetan lizentziaduna.
- Xabier Boveda Garai, Institutuko irakaslea.
- Joxe Garaizabal Aizpurua, irakasle ohia.
- Idazkaria: Juan Antonio Atutxa Balentziaga, Durangoko Udaleko euskara teknikaria.

Bertsoetan:

- Presidentea: Eneko Abasolo Txabarri, Durangoko bertso-eskolako irakaslea.
- Gorka Lazkano Arrizubieta, Bertso-eskolako irakaslea
- Erika Lagoma Pombar, bertsolaria eta irakaslea.


- Presidente: Xabier Boveda Garai, profesor de Instituto.
- Joxe Garaizabal Aizpurua, exprofesor de euskera.
- Maria Nieves Agirrezabal Urien, exprofesora de euskera y licenciada en Románicas.
- Secretario: Juan Antonio Atutxa Balentziaga, Técnico de euskera del Ayuntamiento de Durango.

Poemas:

- Presidente: Maria Nieves Agirrezabal Urien, exprofesora de euskera y licenciada en Románicas.
- Xabier Boveda Garai, profesor de Instituto.
- Joxe Garaizabal Aizpurua, exprofesor de euskera.
- Secretario: Juan Antonio Atutxa Balentziaga, Técnico de euskera del Ayuntamiento de Durango.

Versos:

- Presidente, Eneko Abasolo Txabarri, profesor de la bertso-eskola de Durango.
- Gorka Lazkano Arrizubieta, profesor de bertso-eskola.
- Erika Lagoma Pombar, bertsolari y profesora.



- Idazkaria: Juan Antonio Atutxa Balentziaga, Durangoko Udaleko euskara teknikaria.

Secretario: Juan Antonio Atutxa Balentziaga, Técnico de euskera del Ayuntamiento de Durango

Epaimahaiak egilea nor den jakin gabe baloratuko ditu aurkeztutako lanak.

El jurado valorará los trabajos presentados sin conocer la identidad del autor.

Epaimahaiak irabazleen izenak emango ditu idazlanok aurkezteko epea amaitu eta 30 lanegun balioduneko epean. Epaimahaiaren balorazioan, gutxienez, hauxe jasoko da: aurkeztutako eskabideak, lehiaketan saritutako lanen arrazoizko zerrenda bat kategoriatan sailkatuta eta saritu gabe geratu diren kategoriak, halakorik izanez gero.

El jurado dará a conocer los nombres de los ganadores y ganadoras en el plazo de 30 días hábiles contados a partir del último día fijado para la presentación de los trabajos. En la valoración realizada por el jurado se harán constar, al menos, las solicitudes presentadas, una relación razonable de los trabajos premiados en el concurso clasificados en categorías y no premiados, en su caso.

Epaimahai kalifikatzaileak, sariak emateko irizpideak kontuan hartuta, ebazpen-proposamena aurkeztuko du erakunde emailearen aurrean, alkatearen aurrean, alegia, behin betiko ebazpena eman dezan.

El Tribunal Calificador, teniendo en cuenta los criterios de concesión de los premios, elevará la propuesta de resolución ante el órgano concedente, el Alcalde, para que dicte la resolución definitiva.

7. **Idazlanak aurkezteko epea.** Ipuinak, olerkiak edo bertsoak aurkezteko azken eguna 2021eko apirilaren 27a izango da. Posta arruntaz edo posta elektronikoz bidali daitezke jarraian zehazten diren ondoko helbideetako batera:

7. **Plazo de presentación de los trabajos.** El último día para la presentación de cuentos, poemas o versos será el 27 de abril de 2021. Se puede enviar por correo ordinario o por correo electrónico a alguna de las siguientes direcciones:

a) JULENE AZPEITIA LEHIAKETA
Durangoko Udala – Euskara Saila
Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO


a) JULENE AZPEITIA LEHIAKETA
Durangoko Udala – Euskara Saila
Barrenkalea 17 - 48200 DURANGO

b) juleneazpeitia@durango.eus

b) juleneazpeitia@durango.eus

8. **Lan sarituak.** Saritutako lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, eta Udaleko Euskara Saila arduratuko da lanok argitaratzeaz.

8. **Trabajos premiados.** Los trabajos premiados quedarán en manos de los organizadores y el departamento de Euskera del Ayuntamiento se encargará de su publicación.



9. **Baldintzak.** Deialdi honetan parte hartzen dutenek bertan jasotako baldintzak onartzen dituzte. Hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak (DBEO) xedatutakoari jarraituz, mezu elektronikoen helbideak Durangoko Udaleko Euskara Sailak beren-beregi sortutako "Julene Azpeitia lehiaketa 2021" izeneko fitxategian sartuko dira, eta fitxategi hau Julene Azpeitia 2021eko lehiaketarekin lotutako jardueren informazioa eta komunikazioa kudeatzeko erabiliko da. Hortaz, aukeran izango da datuetan sartu, haiek zuzendu, ezereztu, haien aurka egin, tratamendua mugatu, edo datuok transferitzeko eskubideak erabiltzeko, halaxe aitortzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak. Hortaz, aukera hori baliatzeko, Durangoko Udaleko Euskara Sailera jo behar da (Zeharkalea 3, 48200 Durango).


10. **Lehiaketaren sailak, kategoriak eta sariak.** Lehiaketak hiru sail izango ditu: ipuinak, olerkiak eta bertsoak. Eta bost kategoria ditu sail bakoitzean: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleak; Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak; Batxilergo eta Lanbide Heziketako maila ertaineko ikasleak; 18 urtetik gorakoak.

Lehen 4 kategorietan Durangoko eskoletan ikasten ari diren umeez eta gazteek har dezakete parte eta, halaber, beste herrietako eskoletan ikasten ari

9. **Condiciones.** Los participantes en esta convocatoria aceptan las condiciones recogidas en la misma. En concreto, de conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril, de 2016 (RGPD), las direcciones de correo electrónico se incluirán en el fichero "Julene Azpeitia Lehiaketa 2021", creado al efecto por el Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Durango, para la gestión de la información y comunicación de las actividades relacionadas con el concurso Julene Azpeitia 2021. Por lo tanto, se podrán ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación, oposición, limitación del tratamiento o transferencia de datos, tal y como reconoce el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016. Para ello, habrá que dirigirse al Departamento de Euskera del Ayuntamiento de Durango (Zeharkalea 3, 48200 Durango).

10. **Apartados, categorías y premios.** El concurso constará de tres apartados: cuentos, poemas y versos. Y tiene cinco categorías en cada apartado: alumnos y alumnas de 5º y 6º de Primaria; alumnos de 1º y 2º de Secundaria (ESO); alumnos y alumnas de 3º y 4º de Secundaria (ESO); alumnos y alumnas de Bachillerato y de grado medio de Formación Profesional; mayores de 18 años.

En las 4 primeras categorías pueden participar tanto los/as escolares que cursan sus estudios en centros de Durango, así como los/as escolares



diren ume eta gazte durangarrak ere aurkeztu daitezke. 5 kategorian, aldiz, edonork har dezake parte.

Ipuinak

- LHko 5. eta 6. maila. Luzera: 1-3 orrialde artekoa. Saria: liburu sorta
- DBHko 1. eta 2. maila. Luzera: 2-4 orrialde artekoa. Saria: liburu sorta
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 3-6 orrialde artekoa. Saria: 150 €
- Batxilergoa eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 4-7 orrialde artekoa. Saria: 200 €
- 18 urtetik gora. Luzera: 4-8 orrialde artekoa. Saria: 600 € (PFEZ barik)

Olerkiak

- LHko 5. eta 6. maila. Luzera: 10-20 lerro. Saria: liburu sorta
- DBHko 1. eta 2. maila. Luzera: 20-30 lerro. Saria: liburu sorta
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 30-40 lerro. Saria: 150 €
- Batxilergoa eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 40-50 lerro. Saria: 200 €
- 18 urtetik gora. Luzera: 50-70 lerro. Saria: 300 € (PFEZ barik)

Olerkietan, olerki bat edo olerki sorta aurkeztu ahal izango da, adin-tarte bakoitzean bere neurrikoa.

Bertsoak

- LHko 5. eta 6. Maila. Luzera: 3 bertso. Saria: liburu sorta

durangueses y duranguesas que cursan sus estudios en centros de otros municipios. En la categoría 5ª puede participar cualquier persona.

Cuentos

- 5º y 6º de Primaria. Extensión: de 1 a 3 páginas. Premio: lote de libros
- 1º y 2º de ESO. Extensión: de 2 a 4 páginas. Premio: lote de libros.
- 3º y 4º de ESO. Extensión: de 3 a 6 páginas. Premio: 150 €
- Bachiller y grado medio de Formación Profesional. Extensión: de 4 a 7 páginas. Premio: 200 €
- Adultos mayores de 18 años. Extensión: de 4 a 8 páginas. Premio: 600 € (sin IRPF)


Poemas

- 5º y 6º de Primaria. Extensión: de 10 a 20 líneas. Premio: lote de libros
- 1º y 2º de ESO. Extensión: de 20 a 30 líneas. Premio: lote de libros.
- 3º y 4º de ESO. Extensión: de 30 a 40 líneas. Premio: 150 €
- Bachiller y grado medio de Formación Profesional. Extensión: de 40 a 50 páginas. Premio: 200 €
- Adultos mayores de 18 años / Extensión: de 50 a 70 líneas. Premio: 300 € (sin IRPF)

En los poemas se podrá presentar un solo poema o conjunto de poemas, de su extensión en cada franja de edad.

Versos

- 5º y 6º de Primaria. Extensión: 3 versos. Premio: lote de libros



- DBHko 1. eta 2. Maila. Luzera: 4 bertso. Saria: liburu sorta
- DBHko 3. eta 4. maila. Luzera: 5 bertso. Saria: 150 €
- Batxilergoa eta Lanbide Heziketako maila ertaina. Luzera: 6 bertso. Saria: 200 €
- 18 urtetik gora. Luzera: 8 bertso. Saria: 300 € (IRPF barik).

- 1º y 2º de ESO. Extensión: 4 versos. Premio: lote de libros.
- 3º y 4º de ESO. Extensión: 5 versos. Premio: 150 €
- Bachiller y grado medio de Formación Profesional. Extensión: 6 versos. Premio: 200 €
- Adultos mayores de 18 años. Extensión: 8 versos. Premio: 300 € (sin IRPF)

Indarrean dagoen legediak ezartzen duena aintzat hartuta, 300 eurotik gorako sariak PFEZren %19ko atxikipena izango dute.

Teniendo en cuenta lo establecido en la legislación vigente, los premios superiores a 300 euros tendrán una retención del 19% del IRPF.

Akzesitak

Ezarritako sariez gain, epaimahaia akzesitak ematea proposatu dezake. Horrela balitz, saria liburu-sorta bat izango litzateke.

Accésits

Además de los premios establecidos, el jurado podrá proponer la concesión de accésit. Si fuera así, el premio sería un lote de libros.

11. **Sariak.** Julene Azpeitia 2021 lehiaketari esleitutako sariak, Durangoko Udaleko 2021eko aurrekontuetan jasotzen direnak, guztira, 3.500 euro dira, eta 61 3350 48101 diru-partidatik ordainduko dira.


11. **Premios.** El importe total destinado a premios es de 3.500 euros a cargo de la partida 61 3350 48101 asignada al concurso Julene Azpeitia 2021 en los presupuestos del Ayuntamiento de Durango 2021.

12. **Prozeduraren instrukzioa eta ebazpena.** Organo instruktorea diru-laguntza kudeatzeaz arduratzen den pertsona izango da, eta ebazpena emateko datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko egokitzat jotzen diren jarduketak egin ahal izango ditu.

12. **Instrucción y resolución del procedimiento.** El Órgano Instructor será la persona responsable de la gestión de la subvención, que realizará cuantas actuaciones estime oportunas para determinar, conocer y comprobar los datos en virtud de los cuales debe formularse la correspondiente propuesta de resolución.

Balorazio-mahaia lehiaketarako izendatua izan den epaimahaia izango da, instrukzioaz arduratzen den pertsona idazkaria izango delarik. Hau saioetara

La Mesa de Valoración será el Tribunal designado para el concurso, siendo el Secretario la persona encargada de la



bertaratuko da, ahotsa izanik baina ez botorik.

Prozeduraren instrukzioa bideratzeko Durangoko Udalaren diru-laguntzen gaineko ordenantza orokorrak ezartzen duena hartuko da aintzat.

Durangoko Udaleko alkateak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena egin eta gero.

Diru-laguntza behin betiko emateko erabakiak amaiera emango dio administrazio-bideari. Ebazpenak, gutxienez, onuradun izan diren pertsonen zerrenda eta sariak jasoko ditu.

Ebazpena udaletxeko iragarkien taulan argitaratuko da, administrazio prozedura erkideari buruzko, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen 40. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Halaber, Udaleko www.durango.eus web gunearen bitartez ere emango da ebazpenaren berri.

- 13. Saridunen betebeharrak.** Saridunek eurek joan behar dute sari-banaketa ekitaldira, horretarako adieraziko zaien toki, egun eta orduan. Sariduna ezingo balitz ekitaldira joan, ordezkari bat bidali beharko du. Bestalde, saria jaso duen idazlana euskarri informatikoan eman behar du.

Editatutako material guztietan eta diru-laguntza jaso ondoren egindako jendaurreko agerpen guztietan Durango

instrucción. Este asistirá a las sesiones, con voz pero sin voto.

La instrucción del procedimiento se ajustará a lo establecido en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango.

La resolución será dictada por la Alcalde, tras la propuesta de resolución formulada por el tribunal calificador.


El acuerdo de concesión definitiva de la subvención pondrá fin a la vía administrativa. La resolución contendrá, como mínimo, la relación de personas beneficiarias y los premios.

La resolución será publicada en el tablón de anuncios municipal, a los efectos previstos en el artículo 40 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas.

La resolución será también publicada a través de la web municipal www.durango.eus

- 13. Obligaciones de las personas premiadas.** Las personas premiadas deberán asistir personalmente, o mediante representante en caso de resultarles imposible, al acto de entrega de premios en el lugar, fecha y hora que se señale a tal efecto. Por otro lado, deberán hacer entrega del trabajo premiado en soporte informático.

En todo material editado y en toda comparecencia pública realizada con posterioridad a la concesión, deberá



Udalaren babesa agerrarazi behar da. Horretarako, Durangoko Udalaren erakunde irudiak ezarritako elementuak baliatuko dira nahitaez, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da hitzez hitz: «Ekintza honen Durango Udalaren laguntza jaso du» edo «Durangoko Udalak babestutako ekintza da».

hacerse constar el patrocinio del Ayuntamiento de Durango. Se utilizarán, para ello, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa del Ayuntamiento de Durango, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal: «Ekintza honek Durangoko Udalaren laguntza jaso du» o bien «Durangoko Udalak babestutako ekintza da».

14. Jabetza intelektual. Saria ematen denetik aurrera, eta hurrengo urtebetearen barruan, Durango Udalak bakarrik izango ditu saritutako lanak erreproduzitu, banatu eta saltzeko eskubideak, eta lehiaketan emandako sariaz aparte ez du beste ordainketarik egin beharko, saria baita ordainsari osoa eta bakarra.


14. Propiedad intelectual. El Ayuntamiento de Durango se reservará en exclusiva, durante un plazo de un año a contar desde la fecha de abono del premio, los derechos de reproducción, distribución y venta de las obras premiadas, sin pago adicional alguno al de la cuantía del premio, constituyendo éste la única y total remuneración.

15. Bateriaezintasuna beste diru-laguntzekin. Oinarri hauei jarraituz emandako diru-laguntzak ez dira bateragarriak izango beste diru-laguntza, diru-sarrera edo beste entitate publiko zein pribatu batzuetatik jaso daitezkeen baliabideekin.

15. Incompatibilidad con otras subvenciones. Las subvenciones concedidas al amparo de las presentes bases no serán compatibles con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos procedentes de otras entidades públicas o privadas.

16. Aplikatu beharreko arautegia. Oinarri hauetan jasotzen ez denari dagokionez, Durangoko Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra aplikatuko da. Honetaz gain, eta bertan jasotzen ez denari dagokionez, diru-laguntzei buruzko, azaroaren 17ko, 38/2003 Lege organikoan eta, uztailaren 21eko, 887/2006 Errege Dekretuan onetsitako araubidean jasotakoa hartuko da aintzat. Era berean, honako lege testu hauek ere aplikatuko dira: administrazio prozedura erkidearen, urriaren 1eko, 39/2015 Legea, deialdia egin den unean indarrean

16. Normativa aplicable. En lo no previsto en las presentes bases será de aplicación lo recogido en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Durango, y en lo no recogido, habrá que regirse por la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre y en el reglamento que la desarrolla aprobado por Real Decreto 887/2006 de 21 de julio. Así como la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Norma de ejecución presupuestaria que



dagoen aurrekontua betetzeko araua eta aplikagarria den bestelako araudia. Halaber, gizonen eta emakumeen berdintasunaren arau esparrua ere bete behar da, alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan jasotzen dena.

se encuentre vigente en el momento de cada convocatoria, y demás normativa que resulte de aplicación. Asimismo, deberá cumplirse el marco normativo para la igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero y en la Ley Orgánica 3/2007 de 22 de marzo.

ERANSKINA · ANEXO

Eskatzailearen identifikazio datuak

Datos de identificación del/a solicitante

Izena Nombre	
Deiturak Apellidos	
Adina Edad	
Helbidea Dirección	
Telefonia Teléfono	
Helbide elektronikoa Dirección electrónica	
Kategoria eta saila Categoría y grupo	